

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Bezeroak dira edozein negozio mota aurrera eramateko giltza, hori dela eta, beren beharrak hobeto asetzeko hauen ezaugarri komunak arabera taldekatzea komenigarria izaten da, produktu guztiak ez baitaude bezero guztientzat eginak.

Atal honetan gure proiektuaren bezeroen azterketa egingo dugu, hau da, nortzuk diren, hauen ezaugarriak, etab. Gure zerbitzua edonoren eskura egon arren, jarraian izendatu ditugunentzat bideratuta dago.

Etxetik kanpo bizi diren gazteetan zentratuko gara, 18-30 urte bitarteko gazteetan batez ere. Adin honetan, jende asko unibertsitateara joaten da eta haien etxetik eta gurasoengandik aldentzeko joera dute. Norberaren ohiko bizilekutik urruntzeak makina bat aldaketa dakartzala badakigu, eta horietako bat da elikadura aldaketa, honek okerrera egiten baitu. Osasuntsu jatea beti izango da garrantzitsua eta adin horietan zehazki ezinbestekoa da jaki osasuntsuez elikatzea eta dieta orekatu bat mantentzea, beraien gorputza garatzen jarraitzeko eta etorkizuneko gaixotasunak saihesteko. Baina denbora eskasa eta ohitura faltak direla eta, kalte egiten dieten elikagaietara jotzen dute. Horregatik, gure tuperrekin, janari-zabor hori alde batera utziko lukete. Bereziki adin hori iruditzen zaigu egokiena, urte tarte hortako gazteak, independizatzen hasiak daude eta batzuk unibertsitatearekin gora eta behera aritzean, ez dira gai beraien bazkariak ondo kudeatzeko. Hasiera batean, gure enpresaren zerbitzua Goierri mailan ahalbidetuko dugu, nahiz eta etorkizun batean gure proiektua Gipuzkoako beste herri batzuetara zabaltzea ez deuseztatu.

Gure enpresaren beste bezero potentzial bat lan-ordutegiagatik enpresan bazkaldu behar duen langilea da. Gero eta gehiago dira lanean bazkaltzeko etenaldi labur bat egitea eta etxera edo jatetxe batera bazkaltzera joan beharrean lehenago irtetea nahiago duten pertsonak. Eta zalantzarik gabe, egunero lanera eramateko janaria prestatzeak antolakuntza eta denbora asko eskatzen du.

Horregatik uste dugu pertsona horien ehuneko bat astean bizpahiru aldiz gutxienez guk prestatutako tuperrak erostera joango direla gure enpresara. Kontuan izan behar da



eskaintzen ditugun janari gehienak berotzeko errazak direla eta ez dutela zaporerik galtzen berotzean.

Zalantzarik gabe, elikadura-ohiturak eta lan-ordutegiak egunez egun aldatzen ari dira, eta Europako ordutegi eta ohituretara egokitzen ari dira. Jendeak lehenbaitlehen jan nahi du, bai jateko momenturi bai prestakuntzari denbora gutxi eskeiniz. Hemendik aurrera oso pertsona gutxi joango dira etxera egunero bazkaltzera. Horrek lanetik beranduago irtetea ekartzeaz gain, denbora hori haien zaletasunei eskaintzea eragozten du, hala nola kirolari edo aisialdiko beste jarduera batzuei. Guk azkartasun eta erosotasun hori ahalbidetzen diegu lanean dauden eta hau bilatzen duten bezeroei.